



Hona hemen Gaztedi Danta Taldeak egin dauan ibilbide luzea. Aurten, hain zuzen, bete dauz berrogeita hamar urte eta, jakina, urrezko ezteguak betetzeko zer hoberik aurkeztu deuskun egitaraua baino.

1951garren urtean Franco diktadorea bere sasoirik gogorretan egoan. Bere amorru bizian Euskal Herria egoan baino zapalduago euki nahi eban; zapalkuntza horrek iraun egian ahalegin guztiak egiten ebazan.

Hurrengo hamarkadan gertatu zan moduan, berrogeita hamarreko hamarkadan bere, Eleizaren babesa behar-beharrezko izan zan gure Herriaren aldeko zeredozer egiteko. Atara kontuak, euskaraz egitea debekatuta, umeak bataiatzerakoan euskarazko izenik jartzea bere debekatuta. Sendi askotan, umeen izenak agirietan, paperetan, erderaz agertu arren, etxean eta kalean euskeraz erabiltzen ziran. Sarri askotan, isunak jaso bere bai ume bati deitzerakoan bere euskerazko izena erabiltzeagaitik.

Holako giro baten sortu zan Gaztedi Dantzari Taldea. Giro gogorra zan eta inor gitxik uste eban aurrera jarraituko ebanik. Inor gitxik, esan dot, baina sinisten ebenen artean bere sortzaille zan Aita Txanton karmeldarra dogu.

Berak sortu eta batu ebazan behar ziran bitarteko guztiak. Gazteak batu, irakasleak aurkitu, eta aktuazinoak lortu.

Gorago aitatu dodan giro horretan ez zan bape erreza aurrera ataratzea, baina Aita Txantonen adorea agortu ezinezkoa zan, beti Gaztediren alde.

Behin baino gehiagotan esaten eustan: momentu honetan honeri, folkloreaki, eutsi behar deutsogu, eta gero hizkuntzari, euskerari ekingo deutsogu. Inork ez daijala pentsatu, gauzak esan eta geldi egotekoa zanik; ekintza gizona zan. Euskera arloan bere jo ta ke ibili zan lanean. Ez dodaz aitatuko idatzi ebazan liburuak, ze niretzat *Fatimako Ama Birjinia*, *Karmengo eskapularioa*, eta honelakoak baino garrantzi gehiago eukan beste idazki mota batek. Hain zuzen., *Karmel* aldizkari honen aurrekoa izan zan *Karmel Egutegiak*. Urtean urtean argitaratzen eban *Egutegia* izen horren babespean liburutxo bat. Aldizkari bat argitaratzeko baimenik ez, eta egutegi modura zomorrotuta atera behar.

Berak egin, berak aurkitu nork argitaratu, eta berak saldu. Ha zan lana!





Badirudi hau guztia Aita Txantonen gorazarrez egindako lan bat dala, baina ez, ez da hori. Gaztedin sorrera zelako baldintzetan izan zan jakiteko beharrezko zala uste izan dot.

Taldea sortu zan, baina gero aktuazinoak behar ziran, bestela porrota ganean egoan. Agintarien aldetik ezin ezer espero eta zelan edo halan aktuazinoak topatu behar.

Horretan bere Txanton, nagusi; sermolari ona zan, bildurrik gabekoa eta jendeak zeredozer entzun gura; horretarako zein, Txanton baino hobea? Hori zala-eta herri askotatik deitzen eben jaietako sermoia egiteko. Berak baldintza bat jarri: bera-gaz batera Gaztedi Dantzari Taldea. Eta askotan bai lortu bere bere asmoa. Hor ibiltan ginan Txanton sermolari, eta Gaztedi dantzari. Piñu punta baten ganean dantzatu behar bazan bere, Txanton ez zan ikaratuko: -nire mutilak hortxe bere dantzatu-ko dabe. Inoiz ez atzerantz.



Holakoxea izan zan hasiera eta hortik etorri zan Gaztediren geroa. Gero luze eta oparoa, katea eten gabe gaurko eguneta-

ra heldu arte. Berrogeita hamar urte holako erakunde baten-tzat gitxitan lortzen dan muga da. Baina, zorionez, oraingo honetan ez da mugarik, aro baten amaiera eta aro barri baten abiapuntua baino.

Argi eta garbi ikusi da abiapuntua dala. Berrogeita hamargarren urteurren honetan agirian geratu da hori. Bestela ez zan posible izango urteurren hori ospatzeko antolatu ditugun jaiak -jai ederrak, jai oparoak, artez jantziak eta errespetuz jokatuak-aurrera eroatea.

Hor izan dogu *Ume eta Gazteen Folklore Jaialdia*, Gaztediko 150 dantzari txiki eta ertain, eta Pasai Antxoko *Alkartasuna Txiki* dantza taldeak, martxoaren 10ean Berrio-Otxoako kiroldegian jokatu.

Uztailaren 22an, Santutxuko jaien barruan, *Nazioarteko Folklore Jaialdia*, Burundiko, *Batimbo* eta Sireko (Errusia) *Arkhangelsk* taldeak eta Gaztedik Etxebarriako Hockey zelaiaren emona. Berbenak bere bai (danetarik behar bai dau gizakiak).

Eta hori gitxi balitz legez, Euskalduna Jauregian, inoiz dantza talde batek izan dauan toki eder eta erosoenean, *Zapiak bat Besarka*, zazpi Herrialdeen arteko dantzaldia. Han egon ziran Zuberoko *Urdinarbetarrak* euren Maskaradako dantza batzuk eskeintzen, Donostiako *Goizaldi*, Ezpeletako *Ezpela*, Iruñako *Duguna*, Baiorriko *Arrola*, Lantziegoko *Iradier Salaberri* eta jakina *Gaztedi* bera.

Eta marka guztiak gainditzeko asmoz, hor dator azaroaren 4an, *Arriaga Antzokian* emondako Ikuskizuna.

Hirurogeiko hamarkadan, *Gaztedik* Arriagako Antzoki zaharrean eskaintzen eban "*Eusko Ederti*" izen berean oinarriturik, nik sekula ikusi dodan jaialdirik ederrena. Berrogeita hamar urte luze honeetan parte hartutako dantzarietz osotutako dantza agerraldia.

Bertan dantzari piloa, 150 dantzari baino gehiago, ikusteko aukera izan genduan: garai bakotzeko dantzariak, belaunaldi

desbardinetaoak, 50. hamarkadan ibilitakoak, eta gaur egun ari diranak -azken honeek Gaztediren geroa direnak-, eta garai guztietako txistulari eta musikoak. Dantzariekin batera *Euskeria Abesbatza*, "Mairuek" erraldoien konpartsa eta Ibon Koteron albokaria. Aurkezleak, taldeko partaide izandako Aitziber Irurtia eta Aitor Mazo. Eta ezkutuan, hainbat eta hainbat pertsona gehiago. Guztien lana ahaztu ezinezkoa, behar-beharrezkoa eta eskertzekoa.

Kategoria handiko Ikuskizuna, noizbehinka baino ikusi ezin dana; ni, neure aldetik, beste inoiz nekez ikusiko dala esatera ausartuko nintzake. Abagune hau galdu dauenak berak jakingo dau zergaitik izan dan.

*Joseba Arrieta*